

## XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

### 5514

*AGINDUA, 2014ko azaroaren 28koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailean eta sail horretara atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE/IVAP) nahiz Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuei buruzkoa.*

Euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuen tratamenduan eta sektore publiko zein pribatuak datu horiei gerora ematen dieten erabilera-modalitate orotan pertsona fisikoen ohorea eta intimitatea bermatu eta babestea da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 4. artikulua aipatutako lege organikoko 20.1 artikuluekin bat etorri xedatzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazio fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak agindua eman behar du. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko otsailaren 15eko Aginduak, sailari atxikitako datu pertsonalen fitxategiei buruzkoak, sail horretako datu pertsonalen fitxategi automatizatuak sortzen, aldatzen eta zerrendatzen ditu.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren bidez –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu–, Herri Administrazio eta Justizia Saila sortu zen. Honako hauek osatzen dute saila: iraungitako Jaurlearitzaren Lehendakariatzako Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiko organoek eta unitateek (Koordinazio Zuzendaritzak izan ezik); iraungitako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justizia, Funtzio Publiko eta Araubide Juridikoko sailburuordetzako organoek eta unitateek; iraungitako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Herri Administrazio Sailburuordetzako Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Zuzendaritzak eta Herriarrei Arreta Emateko Zuzendaritzak; eta iraungitako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak.

Agindu honen helburua da segurtasun juridikoa bermatzea, eta, horretarako, sail honetan eta sailera atxikita dauden Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE/IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuaren alorreko araudi-sakabaketa desagerraraztea, bai eta gaur egun alor horretan dugun araudia EAeko Administrazio Orokorraren sail-egitura berrira egokitzea ere, sail-egitura hori aldatu egin baitzen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren bidez.

Hori dela eta,

## XEDATZEN DUT:

## 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen helburua da Herri Administrazio eta Justizia Sailean eta sail horretara atxikita dauden Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (HAEE/IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak arautzea. «Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuaren zerrenda» izeneko I. eranskinean dago adierazita fitxategien edukia.

## 2. artikulua.– Fitxategiak sortzea.

Herri Administrazio eta Justizia Sailean eta sail horretara atxikita dauden Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (HAEE/IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalen fitxategi automatizatuak sortu dira, «Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak sortzea» izeneko II. eranskinean zerrendatutako moduan. Zerrendatutako fitxategien eduki osoa I. eranskineko fitxategi-zerrendan dago ikusgai.

## 3. artikulua.– Fitxategiak aldatzea.

1.– Herri Administrazio eta Justizia Sailean eta sail horretara atxikita dauden Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (HAEE/IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak aldatu dira, «Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak aldatzea» izeneko III. eranskinean adierazitako alderdietan.

2.– Aldatutako fitxategiak, bai eta haien eduki osoak ere, I. eranskinean daude ikusgai, non eta aldaketa ez den beste sail batera atxikitako organoren bat bihurtzea fitxategiaren organo ardura-dun berria.

## 4. artikulua.– Fitxategiak ezabatzea.

Datu pertsonalak dituen honako fitxategi automatizatu hau ezabatuko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundetik (HAEE/IVAP):

«Liburutegiko irakurleak»; izan ere, «Liburutegien kudeaketa» fitxategiaren barnean sartuko da, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko otsailaren 28ko Aginduak araututakoari jarraituz (Agindua, 2014ko otsailaren 28koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, honako hauen datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa: Ogasun eta Finantza Saila; Euskal Estatistika Erakunde Autonomoa eta Lehiaren Euskal Agintaritza Erakunde Autonomoa).

## 5. artikulua.– Datuak lagatzea.

1.– Alde batera utzi gabe Agindu honetako «Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuaren zerrenda» izeneko I. eranskinean fitxategi bakoitzari ezarritako datu-lagapenak, han agertzen diren datuak Administrazio Publikoaren barruan laga ahal izango dira, ordenamendu juridikoak eskumen berdinak edo gai berdinen gaineko eskumenak gauzatzeko esleitutako funtzioak bete ahal izateko.

2.– Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste administrazio publiko batzuetako estatistika-organoei eta -zerbitzuei laga dakizkieke datu horiek, Euskadiko Autonomia Elkartearen Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezarritakoaren babesean.

3.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 11.2 artikuluari jarraituz, aipatutako datuak Herriaren Defendatzaileari, Ministerio Fiskalari eta epaileei, auzitegiei eta Kontu Auzitegiari laga dakizkioke, esleituta dituzten funtzioak bete ahal izan ditzaaten.

6. artikulua.– Segurtasun-neurriak eta kudeaketa.

Fitxategi bakoitzaren ardura duten organoen titularrek behar diren neurriak hartuko dituzte fitxategi horiek sortuak izan ziren helburuetarako erabiltzen direla bermatzeko eta datu pertsonalen segurtasuna ziurtatzeko. Datuak aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo datuetan sartzea saihestu beharko dute neurri horiek. Bestalde, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzeko arauetan aitortutako bermeak, betebeharrak eta eskubideak betetzeko neurriak ere hartu beharko dituzte aipatutako arduradunek.

7. artikulua.– Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren eta sail horretara atxikita dauden Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE/IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren izenean erakunde horiek kudeatutako datu pertsonalen fitxategi automatizatuak tratatzea eskatzen duten zerbitzuak ematen dituztenek zehatz-mehatz bete beharko dituzte fitxategiaren arduradunak emandako jarraibideak. Hala agertuko da idatzita horretarako egiten den kontratuan, eta datu horiek ezin izango dira beste helburu batzuetarako aplikatu edo erabili, ez eta beste pertsona batzuei jakinarazi ere –ezta haiei buruz hitz egitean ere–, 15/1999 Lege Organikoko 12. artikuluan ezarrita dagoen moduan.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, berariaz indargabetuta geratuko dira Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko otsailaren 15eko Agindua, sailari atxikitako datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa, eta Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburu denaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduaren (Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak arautzen dituena) III. eranskina, «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (HAEE) Datu Pertsonalei Buruzko Fitxategiak» izenekoak, eta hemen ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo baxuagoko arau guztiak.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Zerbitzu Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroari jakinaraziko dio fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatu direla, eta fitxategi horiek Erregistroan jasotzea eskatuko du.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 28a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,  
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

## I. ERANSKINA

## «DATU PERTSONALAK DITUZTEN FITXATEGI AUTOMATIZATUEN ZERRENDA»

## A) HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILEAN DATU PERTSONALAK DITUZTEN FITXATEGI AUTOMATIZATUAK

1.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.1.– Saileko langileen kudeaketa

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Herri Administrazio eta Justizia Sailera atxikitako langileriar buruzko informazioa ateratzea eta kontsultatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Herri Administrazio eta Justizia Sailera atxikitako langileenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

– Egoera soziala.

– Datu akademiko eta profesionalak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

– Datu ekonomiko eta finantzarioak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Zerbitzu Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Zerbitzu Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 1.2.– Estatistiken hedapena

### a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Pertsona eta erakunde interesdunei egiten zaien estatistika-argitalpenen banaketa kudeatzea eta kontrolatzea.

### b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Informazio estatistikoa erabiltzen duten pertsonenak.

### c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: pertsona interesdunengandik, sarbide publikoko iturrietatik (profesionalen zerrendak).

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: profesionalen banaketa-zerrenden bidez, Internet bidez.

### d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

Kontsultatu nahi den gaiaren arabera, honako hauek ager daitezke espedientean:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

### e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.

### f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Zerbitzu Zuzendaritza.

### g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

### h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 2.– Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza

### 2.1.– Sinaduren erregistroa

#### a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

EAEko administrazio publikoetako agintariak atzerrian ondorioak izan behar dituzten dokumentuetan egindako sinadurak erregistratzea.

#### b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

EAEko administrazio publikoetako agintarienak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik berarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarriko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunen eta administrazio-ibilbidearen datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 2.2.– EHAAREN FAKTURAZIOA

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren alderdi ekonomiko eta administratiboak kudeatzea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak egindako zerbitzu-eskaerak kontrolatzea eta mekanizatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona edo erakundeak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik berarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: aitortzen edo formularioen bidez.

d) Fitxategiaren oinarriko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Lagapen nazionalak.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

### 2.3.– Informazio-banaketa selektiboa

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Posta-kontu baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko informazioaren banaketa selektiborako harpidetza egitea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Pertsona fisiko eta/edo juridikoenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik berarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: datuen transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da daturik lagatzen.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 2.4.– Arartekoarekiko harremanak

### a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Pertsonak Arartekoari adierazitako kexa-idazkiak eta haien ondorioz sortutako espedienteak nahiz ofizios hasitako espedienteak kudeatzea, izapidetzea eta haien jarraipena egitea.

### b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Interesdunarenak berarenak edo haren legezko ordezkariarenak.

Eragindakoaz edo haren ordezkariaz bestelako pertsonenak.

### c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

– Nondik lortuko diren:

Interesdunarengandik berarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Eragindakoaz edo haren ordezkariaz bestelako pertsonengandik.

Sarbide publikoko iturrietatik.

Lanbide-taldeetako pertsonen zerrendetatik.

Aldizkari ofizialetatik.

Komunikabideetatik.

– Zer prozeduraren bidez jasoko diren: aitorpenen edo formularioen bidez, datuen transmisio elektronikoaren bidez edo beste bilketa-prozedura batzuen bidez.

### d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalen datuak.

– Egoera sozialen datuak.

– Laneko xehetasunei eta administrazio-ibilbideari buruzko datuak.

– Datu ekonomiko eta finantzarioak.

– Arau-hausteei buruzko datuak.

– Bereziki babestutako beste datu batzuk.

### e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

### f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.



g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Handia.

### 3.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

#### 3.1.– Fundazioen Erregistro Orokorra

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Fundazioak eta patronatuetako kideak erregistratzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Patronatuetako kideenak eta pertsona fundatzaileenak. Harremanetarako pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: elkarriketa bidez, Internet bidez edo beste bide batzuetatik (bisita-txartelak, gutunak).

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarritzkoa.

### 3.2.– Elkarteen Erregistro Orokorra

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Elkarteak eta zuzendaritza-batzordeetako kideak erregistratzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Elkarteetako zuzendaritza-batzordeetako kideenak eta bazkide eratzailleak. Harremanetarako pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik berarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: aitortpenen edo formularioen bidez.

d) Fitxategiaren oinarriko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzuetara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

### 3.3.– Estatu osorako gaikuntza duten EAEko funtzionarioen erregistro integratua

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

EAEan lan egiten duten eta Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioen izendapenak, egoera administratiboak, lanpostu-jabetzak, kargu-uzteak eta eragiten dieten beste zenbait gertaera kudeatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioenak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat etorritz.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Datu akademiko eta profesionalak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarritzkoa.

#### 4.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza

##### 4.1.– Araubide Juridiko Liburutegiaren kudeaketa

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Liburutegietako maileguak kontrolatzea eta kudeatzea, eta zenbait estatistika egitea; adibidez, zein diren liburu irakurrienak, zenbat denboraz egoten den batez beste liburua maileguan...

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura lan egiten duten pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: interesdunarengandik berarengandik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunak.

Beste batzuk: administrazioarekin duen lotura (funtzionarioa, kanpo-kontratuduna, bekaduna, aldi baterako kontratuduna).

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Araubide Juridikoaren Sailburuordetza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 5.– Auzibide Zuzendaritza

### 5.1.– Prozedura judizialak

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak epaiketan ordezkatzearen eta defendatzearen ondorioz sortutako prozedura judizialak espedienteak ordenatzea eta kontrolatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen duen prozedurako demandatzaileenak eta demandatuenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Nondik lortuko diren: administrazio publikoetatik.

Zer prozeduraren bidez jasoko diren: eskumeneko organoak paperezko euskarrian egindako jakinarazpenaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Transakzioei buruzko datuak.

– Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta beste herrialde batzuetara transferitzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Auzibide Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Auzibide Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Handia.

## 6.– Funtzio Publikoko Zuzendaritza

### 6.1.– Kargu publikodunak

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen prozedurak kudeatzea, beren kargu edo lanpostuetarako izendatuak edo kontratatuak izatearekin edo karguak uztearekin lotuta dituzten betebeharrak eta eskubideen alorrean; etika-kodearen alorrean; interes publiko eta partikularren arteko gatazken alorrean; bateraezintasun-araubidearen alorrean; jardueren eta ondare-eskubide eta -ondasunen erregistroaren alorrean; eta kalte-ordainen eta aldi baterako prestazio ekonomikoaren alorrean.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Kargu publikodunen katalogoan agertzen diren kargu publikodun guztienak (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkek Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 4. artikulua).

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunengandik eta sarbide publikoko iturrietatik (EHAA), formulario bidez eta bestelako bidez (EHAA).

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

- Identifikazio-datuak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Egoera sozialak.
- Laneko xehetasunei buruzko datuak.
- Informazio komertziala.
- Datu ekonomiko eta finantzarioak eta aseguru-datuak.
- Beste batzuk: egoera (pentsioduna).
- Transakzioak.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Eusko Legebiltzarrari.

«Jaurlaritzaren Legea»ri buruzko ekainaren 30eko 7 /1981 Legeko 44.3 artikulua, eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 27.2 artikulua.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Funtzio Publikoko Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 6.2.– Jokabide-elkarrizketa egituratuak

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Jokabide-elkarrizketa egituratu guztietan jasotako datuak erregistratzea; datuak gero ikerketak, hobekuntzak, txostenak eta halakoak egiteko erabiliko dira.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Eusko Jaurlaritzako karrerako funtzionarioenak eta bitarteko langileenak, bai eta lan-poltsetako ez-funtzionarioenak ere.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik berarengandik, inkesta, elkarrizketa, aitopen edo formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da daturik lagatzen.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Funtzio Publikoko Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Ertaina.

### 6.3.– Langileen kudeaketa bateratua

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Administrazioaren zerbitzura dauden langileen bizitza administratiboari eragiten dieten ekintza guztiak erregistratu eta kudeatzea; langile-beharrak planifikatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarako funtzionarioak, bitarteko langileak eta langile lan-kontratadunak hautatzeko prozesuak kudeatzea; nominak, gizarte-aseguruak, aldi baterako ezintasunak, atxikipenak eta azpikontabilizazioak ordaintzea; langileek eskatutako eta Administrazioak emandako kontsumo-maileguak kudeatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionarioentzako gordetako lanpostu hutsak betetzeko merezimendu-lehiaketetarako deialdietan eskaintzen diren lanpostuetara nahiz lan-eskaintza publikoetara aurkeztutako hautagaiak erregistratu, hautatu, izendatu eta ebaztea.

Langileek lan-ordutegia betetzen dutela, beren lanpostuan daudela eta eraikinera sartzen direla kontrolatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Justizia Administrazioaren eta haien erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileenak, hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenenak eta, nominen kudeaketaren alorrean soilik bada ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleenak eta Ertzaintzako langileenak. Pentsioak edo prestazio konpentsatzaileak jasotzeko eskubidea duten langileenak eta bekadunenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik berarengandik, formularioen edo kupioen bidez eta datuen transmisio elektronikoen edo Interneten bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

- Identifikazio-datuak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Datu akademiko eta profesionalak.
- Laneko xehetasunei buruzko datuak.
- Datu ekonomiko eta finantzarioak eta aseguru-datuak.
- Bereziki babestutako datuak.

– Arau-hausteei buruzko datuak.

Tratamendurako babes legala: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 89.4 artikulua.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioari, Lanbideri, Mufaceri, Mugejuri, mutualitate itunduei, GSINi, Langileriaren Erregistro Zentralari, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari eta lurralde-diruzaintzei, Osakidetzari, Estatuko Administrazio Orokorrari, Zerga Administrazioari, Estatu Agentziako organoei eta foru-aldundiei, kasu bakoitzean beharrezko den mailan, aurreikusitako helburu eta erabileretarako soilik erabiltzeko.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Funtzio Publikoko Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Handia.

## 7.– Lan Harremanen Zuzendaritza

### 7.1.– Eskubide pasiboak

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Eskubide pasiboak kudeatu eta kontrolatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

1936ko urriaren 7tik 1978ko urtarrilaren 6ra bitartean Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura lan egin zuten langile funtzionarioenak edo langile lan-kontratudunenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik eta Administrazio Publikotik, formularioen eta kupoiaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

– Datu ekonomiko eta finantzarioak eta aseguru-datuak.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.



f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lan Harremanen Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Lan Harremanen Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 7.2.– Lan-segurtasuneko gorabeheren erregistroa

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Laneko Segurtasunean izandako gorabeherak kudeatu edo kontrolatzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzura lan egiten duten eta laneko segurtasunaren alorrean gorabeheraren bat izan duten pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik berarengandik, formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

– Beste batzuk.

Saileko zuzendaritza.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lan Harremanen Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila  
Lan Harremanen Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

### 7.3.– Bistaratze-pantailei loturiko laneko arriskuen prebentzioa

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Bistaratze-pantailekin loturiko laneko arriskuak ebaluatzea, haiei buruzko prestakuntza eta informazioa ematea, eta arrisku horiek prebenitzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura dauden eta bistaratze-pantaila baten aurrean lan egiten duten langileenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik berarengandik, formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

– Beste batzuk.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lan Harremanen Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Lan Harremanen Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

### 7.4.– Lan-osasuna

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Administrazioaren zerbitzura dauden langileen osasunari eta segurtasunari eragiten dieten datu guztiak erregistratu eta kudeatzea; eta ikerketa epidemiologikoak, historia medikoak

eta osasun-datuekin lotutako zenbait estatistika egitea (absentismo-indizea, hipertentsiaren kontrola...).

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura lan egiten duten pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik berarengandik, formulario bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

– Bereziki babestutako beste datu batzuk.

Tratamenduaren babes legala: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzkoa.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lan Harremanen Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Lan Harremanen Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Handia.

8.– Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza

8.1.– Sarrera/Irteera-erregistroen liburua

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Erregistro Orokor Zentralaren eta haren erregistro laguntzaileen erregistro-bulegoetara sartzen diren eta haietatik irteten diren dokumentuak erregistratzea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Eusko Jaurlaritzan dokumentuak sartu nahi dituzten pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

Interesdunarengandik edo haren legezko ordezkariarengandik.

Administrazio publikoetatik.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Laneko xehetasunei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

## 8.2.– Zuzenean – Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuaren hobekuntza

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Herritarrei arreta emateko zerbitzua etengabe hobetzeko azterketak, inkestak eta bestelako analisiak egitea.

b) Zer pertsonaren edo talderen datuak agertuko diren:

Zuzenean – Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuarekin harremana duten pertsonenak.

c) Nondik lortuko diren eta zer prozeduraren bidez jasoko diren datuak:

ZUZENEAN Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuarekin harremana izan duten pertsonengandik, aurrez aurre, telefono bidez edo unean unekoak ez diren baliabideen bidez (Internet, posta arrunta, posta elektronikoa...).

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta zer datu pertsonal jasotzen dituen:

– Identifikazio-datuak.

– Ezaugarri pertsonalak.

e) Datuak lagatzea eta jakinaraztea:

Ez da halakorik aurreikusten.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Zer zerbitzutara jo behar den, datuetara sartu, datuak zuzendu, datuak ezeztatu edo datuen aurka egin ahal izateko:

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza

Donostia kalea 1

